

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gorrotoaren diskurtsoari eta erradikalizazioari aurre egitea egungo gizartearen erronketako bat da. Horri dagokionez, Europako Kontseiluak berak garbi utzi du beharrezkoa eta lehentasunezkoa dela estatu kideek neurri egokiak hartzea era horretako gertaerei muga jartzeko eta bide estrategiko komunei ekiteko.

Azken urteotan sare sozialek izan duten garapenak beste bide bat eskaini die belaunaldi berriei, aro digitalean jaiotakoak deritzenei, diskurtsoak sortzeko, adierazteko eta elkartzeko. Gazteek asko erabiltzen

dituzte Internet eta, bereziki, sare sozialak, eta hori harremanak izateko modua aldatzen ari da, baina baita esperientziak eta pentsamoldeak ere. Lehen aldiz, gazteek hartu dute aurrea.

Lehiaketa hau Gehiago Gara ekimenaren barruan dago, eta helburu du gazteek konpromiso aktiboa hartzea erradikalizazioa eta gorrotoaren diskurtsoa desagerrarazteko, konpromiso hori era horretako adierazpenen aurkako gizarte-mugimendu zabal baten hazia izan dadin.

1. Oinarrien xedea

1.1.- FeSP UGTk, eta Jóvenes y Desarrollo erakundeak (aurrerantzean "lehiaketaren antolatzailea") "... lehiaketa antolatu du, beste hauen laguntzarekin: Google (YouTube), Justizia Ministerioa, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa (Arrazismoaren eta Xenofobiaren Behatokia- OBERAXE), Barne Ministerioa (Segurtasuneko Estatu Idazkaritza eta CITCO), Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Centro Nacional de Innovación e Investigación Educativa) eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (Emakumearen Institutua eta Gazteriaren Institutua). Gehiago Gara ekimeneko lantegietan eta prestakuntzan parte hartu duten Espainiako lurraldeko 14 eta 20 urte bitarteko gazteentzat da lehiaketa.

Lehiaketara www.somos-mas.es webgunetik sar daiteke.

1.2.- Oinarri hauen helburua lehiaketa horretan parte hartzeko modua, deialdia eta sariak ematea arautzea da.

2. Lehiaketaren xedea eta modua

2.1.- Lehiaketaren helburua Interneten erabilera ona sustatzea da, eta gazteek konpromiso aktiboa izatea gorrotoaren diskurtsoaren eta erradikalizazio mota guztien aurka egiteko,aldi berean era horretako adierazpenen aurkako gizarte-mugimendu zabal baten hazia izan dadin.

Horretarako, parte hartzen duten pertsonak mezu bat bidali beharko dute bideo baten bidez, sare sozialetan parte-hartze aktiboa izateko gorrotoa eta erradikalismoa adierazten duten diskurtsoen aurka egiteko, batetik, eta elkartasuna, justizia eta desberdintasunarekiko errespetua adierazten duten mezuak indartzeko, bestetik.

3. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak

3.1.- Lehiaketan, Gehiago Gara ekimenaren bidez emandako prestakuntzan parte hartu duten 14 eta 20 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte.

3.2.- Smartphone batekin egin beharreko bideo baten bidez har dezakete parte

Mezua kanta bat izan daiteke, antzerki bat, poesia bat, film labur bat, stop motion bat... Edozein arte-adierazpenek balio du.

Bideoak 30 segundo eta 120 segundo arteko iraupena izan behar du. 90 segundokoa izatea gomendatzen da.

Edukiak gaztelaniaz, katalanez, galegoz edo euskaraz aurkez daitezke.

3.3.- Lehiaketan parte hartzen duten ikastetxeek Gehiago Gara proiektuan parte hartzeko konpromisoa sinatu behar dute aurretik. Konpromiso hori ikastetxe bakoitzean lehiaketa antolatzen duten erakunde arduradunei emango zaie.

3.4.- Prestakuntza Aula Intercultural proiektuaren bidez egin dutenek ikastetxean lantegia ematen duten hezitzaileei eman beharko diete lana. Hezitzailea arduratuko da ikastetxean aurkeztutako lanak lehiaketaren antolatzaileari igortzeaz, eta posta elektronikoko helbide honetara bidaliko ditu: (somosmas@fespugt.eu). Prestakuntzan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak egokiak irizten dituen adina lan aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta egile desberdinenak badira.

Eman zaien prestakuntza Jóvenes y Desarrollo erakundearen bidez jaso badute (edo harekin partzuergo moduan lan egiten duen erakunde baten bidez, Don Bosco eta Vols, adibidez), prestakuntza eman duen ikastetxeko hezitzaileari eman beharko zaizkie lanak. Hezitzailea arduratuko da ikastetxean aurkeztutako lanak lehiaketaren antolatzaileei igortzeaz, eta posta elektronikoko helbide honetara bidaliko ditu: (somosmasvideos@jovenesydesarrollo.org). Prestakuntzan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak egokiak irizten dituen adina lan aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta egile desberdinenak badira.

Parte hartzen duten ikastetxeek lana maiatzaren 15eko 23:59ak izango dituzte muga lanak bidaltzeko, eta lana gutxienez 4 pertsonak eta gehienez 6k sinatu ahal izango dute. Lehiaketaren antolatzaileak epeak aldatzeko eskubidea du, beharrezkoa iritiz gero.

18 urtetik beherako parte-hartzaileek amaren, aitaren edota legezko tutorearen berariazko baimena behar dute. Baimen horrek lehiatzeko egiten duten bideoan parte hartzeko baimena emango dio, bai eta lehiaketaren antolatzaileek eta laguntzaileek Gehiago Gara proiektuaren barruan erabiltzen den material grafiko eta bideografiko guztian agertzekoa ere, lehiaketako bideoetan, bereziki, baina baita beste edozein motatako material multimediatan ere.

Lehiaketan parte hartzeko aurkezteak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

3.5.- Hau egin beharko da lanak aurkezteko:

a. Aula Interculturalek antolatutako prestakuntzan parte hartu badute:

i. Lan audiobisualak eta oinarri hauetan erantsitako izen-emateko orria, parte hartzen duten pertsona guztiek sinatuta, Aula Interculturali esleitutako ikastetxeetan talantegiak ematen zituzten

hezitzaileek bideratuko dute. Hezitzaileek egingo dute jarraipen guztia eta haiek izango dira bideoak eta dokumentuak Aula Interculturali helarazteko arduradunak, eta posta elektronikoko helbide honen bidez egingo dute: somosmas@fespugt.eu

b. Jóvenes y Desarrollo antolatutako prestakuntza parte hartu badute:

i. Lan audiobisualak eta oinarri hauetan erantsitako izen-emateko orria, parte hartzen duten pertsona guztiek sinatuta, ikastetxe bakoitzeko hezitzaileei emango zaie (Jóvenes y Desarrollo teknikarien bidez jasoko zuten prestakuntza). Hezitzaileak izango dira jarraipen osoa egiteko arduradunak eta bideoak eta dokumentuak Jóvenes y Desarrollo lan-taldeari helaraziko dizkietenak (edota harekin partzuergo moduan lan egiten duten erakunde

bati, Solidaridad Don Bosco eta Vols, adibidez). Posta elektronikoko helbide honen bidez egingo dute: somosmasvideos@jovenesydesarrollo.org

c. Parte-hartzea ez da kontuan hartuko harik eta lehiaketaren antolatzaileak egiaztatzen duen arte oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla eta lanak oinarrietan ezarritakoa betez jaso direla. Lanak jasota daudela egiaztatuta geratuko da lehiaketaren antolatzaileek posta elektronikoko mezuari erantzun eta lana jaso duela adierazten duenean.

3.6.- Lehiaketari dagokionez sor daitezkeen zalantzak edo galderak helbide elektroniko haue-tara bidal daitezke:

• (somosmas@fespugt.eu) Aula Interculturalak (FeSP-UGT) antolatutako prestakuntza parte hartzen duten pertsonak badira.

• (somosmas@jovenesydesarrollo.org) Jóvenes y Desarrollo antolatutako prestakuntza parte hartzen duten pertsonak badira.

3.7.- Lehiaketara aurkeztu ahal izateko, lanaren edukiak lotuta egon beharko du lehiaketaren antolatzaileak emandako materialarekin eta horri dagokionez ikastetxeko hezitzaileak emandako prestakuntzarekin.

3.8.- Edonola ere, saria jasotzen duen edukiak originala eta beraiek sortutakoa izan behar du, eta lanak inola ere ezin ditu urratu hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak. Lanaren egileek adierazten eta bermatzen dute lehiaketan parte hartzeko aurkeztutako lanek ez dutela hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubiderik urratzen ezta beste mota batekorik ere.

3.9.- Ez da onartuko oinarri hauek betetzen ez duen lanik, eta debekatuta dago, besteak beste, indarkeriazko edukiak, xenofoboak, sexistak edo pornografikoak dituzten lanak aurkeztea; ohorerako eskubidearen eta norberaren irudiaren aurka egiten dutenak; legez kanpoko jarduerak eta zerbitzuak bultzatzen edo zabaltzen dituztenak; hirugarrenen ondasunak edo eskubideak kaltetzen dituztenak; edota Espainiako legedia edozein modutan urratzen dutenak. Lan horiek baztertu egingo dira, berehala.

Lehiaketaren antolatzaileak lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu lehiaketaren helburua kontuan hartuta desegokiak jotzen dituen lanak, berak bakarrik hala erabakita.

Horrez gain, bideoek YouTuberen komunitatearen arauak bete behar dituzte.

3.10.- Behar ez bezalako parte-hartze oro edo adierazitako baldintzak bete gabe edota datu oker, ez zehatz, osagabe edo iruzurrezkoetan oinarritutakoak baliogabetu egingo dira eta ez dira kontuan hartuko lehiaketan parte hartzeko.

3.11.- Baldintza hauek betetzea ezinbestekoa da, eta parte hartzen duten ikastetxeek ez badute sariren bat lortu duten lanen egileak diren neska eta mutilak ikastetxean matriculatuta daudela egiaztatzen, ezin izango dute oinarri hauetan adierazitako saririk jaso.

3.12.- Ezin izango dute lehiaketan parte hartu lehiaketaren antolatzaileak, laguntzaileak eta antolaketan eta prestaketan parte hartzen duten pertsonen, haien senideen eta epaimahaiko kideren batekin edo batekin baino gehiagorekin laneko lotura edo familia-lotura duen inork.

4. Sariak

4.1.- Lehiaketak bi kategoria ditu:

a) Junior sari handia, 14 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat (DBH3 eta 4, gutxi gorabehera).

b) Supra sari handia, 17 eta 20 bitarteko ikasleentzat (Batxilergoa eta Lanbide Heziketa, gutxi gorabehera).

Talderen batean bi kategorietako adina duten gazteak badaude, taldeak, haien ardura duen hezitzailearekin batera, bi kategorietako zeinetara aurkeztuko den erabakiko du.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztietatik 5 finalista aukeratuko dira kategoria bakoitzeko. Lan horietatik, kategoria bakoitzeko talde irabazle bat aukeratuko da:

a) Junior sari handia: talde irabazleak Googlek Europan duen YouTube Spaceetako bat bisitatzeko egonaldia irabaziko du.

b) Supra sari handia: talde irabazleak Googlek Europan duen YouTube Spaceetako bat bisitatzeko egonaldia irabaziko du.

4.2.- Lehiaketaren antolatzaileak saria aldatzeko eskubidea izango du, baina aurretik jakinarazi beharko die lehiaketan parte hartu duten pertsonen.

4.3.- Sarietako batek bidaia edo lekualdatzea egitea eskatzen badu, sariaren irabazlearen edo irabazleen ardura izango da bidaiatzen dutenen pasaporteak baliozkoak direla bermatzea, beharrezkoak diren bisak edo bidaia-agiriak lortzea eta beharrezkoak diren aseguruak edukitzea. Horrez gain, aitaren, amaren edo legezko tutoreen baimena eduki beharko dute, eta lehiaketaren antolatzaileari emango zaio hark eskatzen dienean, eta, betiere, dagokien bidaia egin aurretik.

Aurkakoa adierazten ez bada, Googlek talde irabazleentako kideen eta YouTube Spacera egiten duten bisitan lagunduko dieten hezitzaileen (gehienez bi, talde irabazle bakoitzeko) lekualdatze-gastuak estaliko ditu, arrazoizko zenbateko batean.

4.4.-Hau estaliko dute lekualdatze-gastuek: (1) Lehiaketaren antolatzaileak aukeratutako hegazkin-txartela (joan-etorria klase ekonomikoan) aireportu nagusiaren eta YouTube Spaceren artean, (2) hoteleko gau baterako gela bikoitza, (3) otorduak, eta (4) sariari lotutako aireportu/geltoki eta ikuskizunen arteko joan-etorriekin lotutako gastuak. Zenbait data mugatuta daude.

Parte-hartzaileak ordaindu beharko ditu gainerako gastuak, hauek barne: goian aipatutakoez bestelako lekualdatze osagarriak, bidaiariari aplikatzen zaizkion zergak edo aduana-zergak, gainkostuak, aireportuko zergak, kudeaketa- eta zerbitzu-gastuak, ostatu-gastu pertsonalak, segurtasun-gastuak, zergak edota parte-hartzailearen erantzukizunpekoak diren beste edozein. Sariak ezin dira eskudirutan jaso.

5.- Irabazleak izendatzea

5.1.- Kategoria bakoitzeko (Junior sari handia eta Supra sari handia) irabazleak honela aukeratuko dira:

a) Aurrehautaketa moduan, kategoria bakoitzeko 10 bideo aukeratuko ditu FeSP UGTko ordezkariak, Jóvenes y Desarrollo ordezkariak eta parte hartzen duen ministerio bakoitzeko ordezkari batek osatutako batzorde batek (ikus: "Aurrehautaketako batzordea").

b) Aurrehautaketako batzordeak epaimahaiko kide bakoitzari kategoria bakoitzeko 10 bideoak emango dizkio.

a. Epaimahaiko kide bakoitzak, 5.3 "Hautaketa-irizpideak" artikuluan adierazitako irizpideei jarraituz, lan bakoitzari 1 eta 5 puntu arteko puntuazioa emango dio, zenbait irizpide puntuatzeko formulario baten bidez (5 altuena izanda).

b. Epaimahaiko kide bakoitzak puntuazio-formularioa igorriko dio lehiaketaren antolatzaileari, eta hark zenbatuko ditu epaimahaiko kideak

aurrehautatutako lan bakoitzari emandako puntuak.

c. Epaimahaiko kide bakoitzak emandako puntuak batuta puntu gehien lortu dituzten kategoria bakoitzeko 5 lanak lehiaketako finalista izateko aukeratuko dira.

d. Epaimahaiko kide bakoitzak emandako puntuak batuta kategoria bakoitzean puntu gehien lortu dituen lana Junior

sari handiaren irabazlea eta Supra sari handiaren irabazlea izango dira.

e. EAurrehautatutako lanen artean berdinketarik baldin badago, antolaketak izendatutako hirugarren batek adieraziko du aurrehautatutako lanen artean zein den irabazlea, 5.3 "Hautaketa-irizpideak" artikuluan irabazleak aukeratzeko adierazitako irizpideei jarraituz.

5.2.- Epaimahaiaren osaera. Finalistak eta irabazleak presidente batek eta gehienez 4 kidek osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu. Epaimahaiaren osaera lehiaketaren antolatzaileak erabakiko du.

Lehiaketaren antolatzaileak eskubidea du epaimahaiaren osaera aldatzeko, eta ekimenaren web-orrian (www.somos-mas.es) jakinaraziko ditu aldaketa horiek, parte hartzen duten ikastetxeek lehiaketatik ateratzeko aukera izan dezaten bateraezintasunik izanez gero, oinarri hauen 2. artikulua ezarritakoa betez.

5.3.- Hautaketa-irizpideak. Irizpide hauek izango dira kontuan aurrehautatuko lanak kalifikatzeko, edo berdindutako lanen berdinketa hausteko:

- a.** Bideoa bat etortzea lehiaketaren gaiarekin;
- b.** Edukia positiboa izatea eta gazteak nabarmentzea;
- c.** Edukiaren kalitatea; eta
- d.** RMugak errespetatzea: 30 eta 120 segundo arteko bideoa, smartphone batekin grabatutakoa.

5.4.- Irabazleak iragartzea. Lan finalistak ekainean iragarriko dira, ekitaldi publiko batean (horren data lehiaketaren antolatzaileak iragarriko du lehiaketaren web-orrian), eta posta elektronikoz ere jakinaraziko zaie parte hartu duten pertsoneri eta haien ikastetxeei. Horrez gain, bide hauetatik ere iragarriko da:

- a.** ULehiaketaren antolatzaileen egindako prentsa-komunikatu baten bidez.
- b.** Google Españaren blogaren bidez. Helbide honetatik sar daiteke: <https://espana.google-blog.com/>

Junior sari handiaren eta Supra sari handiaren irabazle izan diren lanak sari-banaketako ekitaldi batean iragarriko dira. Ekitaldiaren buru lehiaketaren antolatzaileak egongo dira eta haiek egoki irizitako egunean egingo da. Eguna ekimenaren webgunean (www.somos-mas.es) adieraziko da, eta pertsona finalistei eta haiek ikasten duten ikastetxeei ere jakinaraziko zaie. Lan finalistek egileek sari-banaketako ekitaldira joateko konpromisoa hartzen dute, eta haien ikastetxeko bi hezitzailek lagunduko dituzte, gehienez.

Googlek estaliko ditu, arrazoizko zenbateko batean, talde finalistak Madrilen sari-banaketako ekitaldira joateko bidaia-gastuak, eta talde bakoitza, gehienez, bi hezitzailek lagunduko du. Hau estaliko dute bidaia-gastuek: (1) autobus/tren/hegazkineko txartel bat, lehiaketaren antolatzaileak aukeratutakoa (joan-etorria, klase ekonomikoan) geltoki/aireportu nagusiaren eta Madrilen ekitaldia egiten den lekuaren artekoa, (2) Madrilen hotelean gau bat igarotzeko gela bat, ezinbestekoa baldin bada soilik. Gainerako gastuak parte-hartzaileek eta haiei laguntzen dieten hezitzaileek ordaindu beharko dituzte.

5.5.- Parte hartzaileek eta/edo ikastetxeek saria onartzen dutela adierazi beharko diote lehiaketaren antolatzaileari hark bidalitako posta elektronikoki erantzunez. Horretarako, lau (4) egun izango dituzte, gehienez, antolatzaileek lehiaketaren emaitzaren berri emateko bidalitako mezua jaso zutenetik.

5.6.- Saria onartzean, irabazleak edo irabazleek konpromisoa hartzen dute lehiaketaren antolatzaileak "Gehiago Gara" ekimenaren baitan antolatzen dituen ekitaldietan (argazki-saioak, prentsa-konferentzia, erakusketak eta abar) urte betez parte hartzeko, iragarki ofiziala egiten denetik.

5.7.- Irabazleek ezer adierazten ez badute, edo ezarritako epean goian adierazitako prozesuak betetzen ez badituzte, saria ez onartutzat joko da eta beste bati esleituko zaio baldintza hauetan:

a. Junior sari handia hasiera batean irabazi zuen taldeak onartzen ez badu, lehiaketan parte hartu duen beste talde bati esleituko zaio. Epaimahaiak emandako puntuen beheranzko hurrenkeran izendatuko da irabazlea.

b. Supra sari handia hasiera batean irabazi zuen taldeak onartzen ez badu, lehiaketan parte hartu duen beste talde bati esleituko zaio. Epaimahaiak emandako puntuen beheranzko hurrenkeran izendatuko da irabazlea.

c. Eta hori guztia hasiera batean irabazi zuten taldeei saria berresteko emandako lau (4) eguneko epea amaitzen den egunaren hurrengo sei (6) egunetan egingo da.

5.8.- Sariak ezin zaizkie hirugarrenei eman, irabazleentzat soilik dira. Parte hartzen duten taldeak soilik dira sariak banatzearen erantzuleak, sariak beste pertsona batzuk baliatu badituzkete.

5.9.- Lehiaketaren antolatzaileak eskubidea du saria talde irabazleari(ei) ez emateko, lehiaketaren arauak urratu dituela edota oinarrietan ezarritakoa ez duela bete egiaztatzen bada.

5.10.- Konfidentzialtasuna. Parte hartzen duten taldeek eta haiei dagozkien ikastetxeek konfidentzialtasunari eusteko konpromisoa hartzen dute, eta lehiaketaren antolatzaileak beraiei igorritako informazioa ez zabaltzekoa. Eta, bereziki, lehiaketaren emaitzari buruzko informazioa, harik eta antolaketak publikoki jakinarazten duen arte.

6.- Datu pertsonalak

6.1.- Lehiaketan parte hartzen dutenek aitortzen eta onartzen dute lehiaketaren antolatzaileak aukera izatea lehiaketan izen ematean emandako datu pertsonalak erregistratu, gorde, filialekin eta afiliatutako sozietateekin edo beste moduren batean lotutakoekin partekatzeke, eta, orobat, antolatzaileak edo hark horretarako izendatutako beste batek erregistratzeko, betiere lehiaketaren eta hori sartuta dagoen ekimenaren eremuan.

6.2.- Lehiaketaren antolatzaileak ez du lehiaketan parte hartzen duten taldeen informazio pertsonalik partekatuko lehiaketaren antolatzailearen kanpoko enpresa, erakunde edo norbanakoekin, salbu eta lehiaketa honetarako beharrezkoak diren gauzetarako.

6.3.- Parte-hartzaileari buruzko informazioa parte-hartzailearen egoitzako herrialdea ez den beste herrialde batera ere transferitu daiteke, AEBra barne.

6.4.- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak eskubidea dute lehiaketaren antolatzaileak lehiaketaren eremuan jasotako datu pertsonal oro eskatzeko, egiaztatzeko, zuzentzeko edota ezabatzeko. Horretarako, posta elektronikoko bidez jakinarazi beharko diote helbide hauetan: FeSP-UGT bada, (somosmas@fespugt.eu) eta Jóvenes y Desarrollo bada, (somosmas@jovenesydesarrollo.org)

6.5.- Hezitzaileak edota ikastetxeak, taldeek ikastetxe baten bidez parte hartzen badute, ziurtatu eta bermatu beharko du baimena duela bideoan parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalen berri emateko.

7.- Jabetza intelektualeko eskubideak

7.1.- Parte hartzen duten pertsonen nortasunerako eskubidea eta jabetza literario eta artistikorako eskubidea.

a. Parte hartzen duen pertsonak baimena ematen dio lehiaketaren antolatzaileari, oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako baldintzetan, lehiaketaren antolatzaileari lehiaketaren barruan igorritako elementuen multzoa (pertsona horrek lehiaketan parte hartzeko emandako bideoak, bai eta ordezkatzeko duen ikastetxearen irudiak, logoak eta berezko hizkuntza-elementuak) erreproduzitu, aurkeztu, jendeari komunikatu eta, beharrezkoa bada, aldatzeko, eta baimena ematen dio, halaber, bere irudia, izena, abizena eta/edo ezizena erabiltzeko, aurrerago adieraziko diren lekuetan.

b. Taldeen ikastetxeak modu esplizituan onartzen du elementu horiek erreproduzitu eta/edo irudikatu eta/edo egokitu egin daitezkeela leku hauetan:

i. Horretarako dagoen web-orrian eta lehiaketaren antolatzaileen web-orrietan.

ii. Lehiaketaren antolatzaileak irabazleak iragartzeko ekitaldian egiten duen prentsa-komunikatuan.

iii. Google Españaren blogean, helbide honetan eskuragarri dagoenean: <https://espana.googleblog.com/>

iv. Twitter, Facebook eta abarretako kontuetan.

v. Lehiaketaren antolatzailearen Youtubeko orrian.

c. Jabetza intelektualeko eskubideak doan ematen dira, mundu-mailan, jabetza intelektualeko eskubideak babesteko legezko epean, lehiaketan parte hartu zuen datatik

kontakutik hasita; eta, halaber, doan ematen dira, bereziki, parte hartzen duen pertsonari lotutako eskubideak, web-orrian on line argitaratuta irauten duen bitartean.

d. Parte hartzen duten pertsonak eta/edo ikastetxeak egiaztatzen du badutela elementu horiek eta horietan agertzen diren pertsonak eta ondasunak erabiltzeko lagapen hau emateko aginpidea, eta lehiaketaren antolatzaileari bermatzen dio goian aipatutako elementuak modu baketsuan erabiliko dituela, eta, bereziki, hirugarrenen edozein motatako bazterketaren aurka egingo duela.

e. Parte hartzen duen pertsonak adierazten du goian aipatutako informazioak zuzenak eta osoak direla oinarri hauetako 3.2 artikuluko baldintzen barruan lehiaketan parte hartzeari dagokionez.

8.- Lehiaketako baldintzetarako eta oinarrietarako sarbidea

Lehiaketari buruzko informazio guztia kontsultatzeko aukera dago ekimenaren web-orrian: www.somos-mas.es

9.- Lehiaketaren oinarriak

9.1.- Gordailatuta dauden lekua. Lehiaketaren oinarriak denboran eta forman egokia den moduan gordailatuko dira Madrilgo Notarioen Elkargoko Carlos Ruiz-Rivas Hernando notarioaren aurrean (helbide profesionala: I Paseo Pintor Rosales 52, 1° D 28008 Madrid).

9.2.- Oinarriak eta deuseztasuna. Oinarri hauetako artikulua bat edo bat baino gehiago deusez bihurtzen badira edo baliorik gabe geratzen badira lege-aldaketa batengatik edo epaile baten erabakiz, horrek ez du oinarri hauetako gainerako artikuluen balioan eta aplikazioan eragingo.

10.- Erantzukizuna

10.1.- Lehiaketan parte hartzeak jarrera zintzoa izatea dakar, eta horrek esan nahi du guztiz errespetatuko direla ezarritako arauak eta parte hartzen duten gainerako pertsonen eskubideak.

10.2.- Parte hartzen duten taldeek konpromisoa hartzen dute ez dutela erabiliko edo aplikatuko oinarri hauetan adierazitako arauak zorrotz betetzen ez dituen parte-hartzeko prozesurik.

10.3.- Lehiaketaren antolatzaileak eskubidea du lehiaketaren oinarriak guztiz betetzen ez dituen pertsona ororen parte-hartzea bertan behera utzi, deuseztat jo edo baliogabetzeko.

10.4.- Eskubidea du, halaber, lehiaketa behar bezala ekitea oztopatzen duen pertsona ororen parte-hartzea ukatzeko, eta amarrua edo iruzurra egin, trukatu edo lehiaketa bide onetik ateratzea eragiten duena, edo saiatzeko dena, epaitzeko.

10.5.- Iruzur egiteak taldea berehala lehiaketatik kanporatzea dakar. Talde batek iruzurra egin edo horretan saiatu edota horrelako manipulazioetatik onura atera badu eta irabazlea izan bada, taldea hori lehiaketatik kanporatu eta saririk gabe geratuko da.

10.6.- Lehiaketaren antolatzaileak ahalmena du, berak soilik hala iritzita ere, egoki iruditzen zaion egiaztapen oro egiteko artikulua hau eta oinarri hauek guztiak betetzen direla bermatzeko, eta, bereziki, lehiaketatik kanpo uzteko abusuren bat egin duen edo iruzur egiten saiatu den pertsona parte-hartzailea lehiaketatik kanpo uzteko. Talde parte-hartzaileak, hari dagokion ikastetxearen bidez, onartzen du oinarriak behar bezala betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaion justifikazio-agiri oro emango duela.

10.7.- Lehiaketaren antolatzaileak ahalmena du, edozein unetan eta arrazoirik eman behar izan gabe, lehiaketa eteteko, luzatzeko, aldatzeko eta/edo bertan behera uzteko, eta ezin izango zaio erantzukizunik eskatu.

10.8.- Lehiaketaren antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango talde parte-hartzaileek ezin izan badituzte lanak aurkeztu antolatzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, eta, bereziki, Internetera konektatzeko arazoengatik bada, edo lana formatu irakurtezin edo kudeatu/prozesatu ezin den formatu batean aurkezten bada.



10.9.- Beste alde batetik, lehiaketaren antolatzailea ez da, irabazleei eskaintzen zaizkien sariei dagokienez, parte hartu duten pertsoneri eta haien laguntzaileei egotz dakizkiekeen kalteen erantzule.

11.- Erreklamazioak

Oinarriak betetzearekin edo interpretatzearekin lotutako edozein auzi idatziz jakinarazi behar zaio lehiaketaren antolatzaileari helbide honetara: FeSP-UGT bada (somosmas@fespugt.eu), eta Jóvenes y Desarrollo bada, (somosmas@jovenesydesarrollo.org)

12.- Aplikagarria den legedia - Eskumenak ematea

Oinarri hauek Espainiako legediaren mende daude. Lehiaketa honekin lotuta sortzen den auzi oro Madrilgo jurisdikzioari dagokien epaitegiek ebatziko dute.